




OREXAKO
UDALA



orexa
Bidea haren hasten da

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA, OREXAKO UDALEKO IDAZKARI-KONTU
HARTZAILEAK

ZIURTATUA:

Udal honek, bi mila eta hogeiko urtarrilaren hogeita hamaikan burututako Bilkura Nagusian, beste batzuen artean, erabaki hau onartu zuela:

HAPOren AURRERAKIN DOKUMENTUA JENDAURREAN JARTZEARI BURUZKO ONESPENA

2014ko uztailaren 11an, Orexako Udalbatzarrak hartutako Ebazpenaren bitartez, Orexako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra idazteko prozesuari ekin zitzaion.


Hartutako Ebazpen haren baitan, Eusko Jaurlaritzan eta Gipuzkoako Foru Aldundian babes zibilaren, ingurumenaren, kultura-ondarearen eta naturguneen alorreko eskumenak dituzten organoei informazioa eskatu zaitzaien arriskuen berri izateko eta ingurumena, kultura-ondarearen babesa eta naturguneak baldintzatzen dituzten faktoreak zeintzuk diren eta antolamenduak zeintzuk errespetatu behar dituen jakiteko. Horrela, txosten hauek jaso dira:

- Gipuzkoako Foru Aldundiako Lurralde Antolaketa Departamentuaren txostena.
- Gipuzkoako Foru Aldundiako Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendari Nagusiaren txostena.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko txostena.
- Ihoberen txostena.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko txostena.
- Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuko txostena.
- Gipuzkoako Foru Aldundiako Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuko Txostena.
- Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailburuordearen txostena.

Aurrerakin dokumentuak ezarri nahi den antolamenduaren irizpideak, helburuak, alternatibak eta proposamen orokorrak zehazten ditu eta hau onesteak barruko



OREXAKO
UDALA



orexa
Bidea hemen hasten da

administrazio-eragina izango du, kasuan kasuko hirigintza-planaren idazketari begirakoa. Kasu honetan, aginduzkoa da Hiri Antolamendurako Plan Orokorra prestatzea eta onestea proposatzen delako. Hori guztia, ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 87. artikuluan xedatu duenaren arabera.

Bestalde, Aurrerakin dokumentuan ere, ingurumen-eraginaren baterako ebaluazioa egiten duen azterketa, hasteko agiria, ere jasotzen da.

Informazio Batzorde Orokorrak, aldeko onarpena eman dio proposamen honi.

Horren aurrean, aurretik bere edukiaren inguruan azalpenak emanda eta eztabaida izanda, Udalbatzak ondorengo erabaki du aho batez:

ERABAKIA

Lehena.- Orexako Hiri Antolamendurako Plan Orokorren Aurrerakina onartzea.

Bigarrena.- Orexako Hiri Antolamendurako Plan Orokorren Aurrerakinean dagoen ingurumen-eraginaren baterako ebaluazioa egiten duen azterketa hasteko agiria onestea, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritzari helaraztea, Plan Orokorren Ingurumen Ebaluaketa Estrategikorako prozesua haste aldera, otsailaren 27ko 3/1998 Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorra eta garatzen duen 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenari jarraiki.

Hirugarrena.- Orexako Hiri Antolamendurako Plan Orokorren Aurrerakina jendaurrean jartzea bi hilabetez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurraldean hedadura handiena duen egunkari batean iragarkia jarrita eta epe horretan interesdunek, nahi izanez gero, iradokizunak eta alternatibak aurkez ditzakete. Aurrerakina udal mugakideetara bidaliko da baitaere ezagutu dezaten, eta guzti hau ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 90.3 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Honela ager dadin eta behar den lekuan ondorio egokiak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatu eta sinatu du, Alkatearen onespenerekin, Orexan, bi mila eta hogeiko otsailaren lauan.

